

Egilea: Patxo Telleria Zuzendaritza: Jokin Oregi eta Patxo Telleria
Aktoreak: Mikel Martinez eta Eneko Sagardoy

ZERGATIK, Jamil?



TARTEAN teatroa

azalpenik gabeko hilketa bat
bi gizaseme, bi gatazka

gazte bat magrebiar jatorrikoa
elbarritu bat bizitza duinaren bila

Suspentse teatralaren ariketa kezkarri eta bizigarria
Errealitateak ezeztatuko dituen uste ustelak.

Aurreritziak

Ezer ez da dirudiena
Krudeltasunetik nobleziara, intrigatik pasatuz.

Sinopsia

Kolpe bat jaso eta memoria galdu berri duzu. Dakizun bakarra, poliziak esan dizulako, zera da: bere ohean zetzan elbarritu babesgabe bat tiroz akatu duzula; duela gutxirarte maitekiro zaintzen zenuen gizona, hain zuzen. Zeure burua duina eta zintzotzat duzu eta hala ere krimenik gorrotagarriena burutu duzu. Eta zeure buruari galdetzen diozu: “Zergatik, Jamil?”

Zergatik?

Patxo telleria

Aitortu behar dut antzerkia idazterakoan helburu nagusi bat dudala: ikuslea dibertitzea. Fribolitatearen aldeko aldarrikapena ematen du, baina ez da. Niretzat, “dibertitzea” “aspertzea”-ren antonimoa da, besterik ez. Eta ezaguna da Billy Wilder-ren mandamendu lehen eta bakarra: “Ez jendea aspertu”.

“Zergatik, Jamil?”-en konfliktu bat planteatzen da: azalpenik gabeko hilketa bat. Hori da antzezlanaren trama. Konfliktu horren azpian beste bi daude: pertsonaia bakoitzaren giza gatazka. Hori da antzezlanaren gaia.

Batetik Jamil, magrebiar jatorriko gazte bat, ustez elbarritu bat odol hotzez hil duena, ohean zetzan gizagaixo babesgabe bat. Gaztearen “atzerritar”, “inmigrante”, “moro” kondizioak heritarren sumindura areagotzen du.

Bestetik Xabier, paralisi progresiboak jotako gizona, gaixotasunari orain arte amore eta bizi pozaz aurre egin diona. Ezkondutako gizona, emazteak maite du, baina ez daki (edo ez du jakin nahi) senarraren borondatea ulertzen.

Materiale honekin drama gordin bat eraiki zitekeen. Baina nik bestelako apostua egin dut, azaltzen diren konfliktuen sakontasuna errespetatuz, suspentse teatralaren ariketa kezkarri eta bizigarria planteatzen duen egitura bat proposatu dut.

Generoari dagokionez, ikusleak bere uste, suposizio eta kabalak egingo ditu hasieratik, geroago errealitateak ezeztatuko dituena. Ikusleak bere epaia emango du etengabe, antzezlanak irudikatzen duen gizartearen mekanismo berdinek bultzaturik. Ikuslearen aurreritziak, gizartearen aurreritziak dira.

“Zergatik, Jamil?”-en ezer ez da dirudiena. Hasierako hiltzaile krudela, gazte solidarioa da. Hildako gizagaixoak azkenean bilatzen zuen bakea lortu du. Hasierako pertsonai antagonikoak lagun minak dira. Hilketa latza, adiskidetasunezko ekintza.

Teloia jeisten denean, intriga eta suspentseko ariketa ingeniosoarekin gozatzeaz gain, aurkituko dugu zenbateraino den gizasemea jator aritzeko gauza.

LAN TALDE ARTISTIKOA

Egilea:

Patxo Telleria

Zuzendaritza:

Jokin Oregi y Patxo Telleria

Aktoreak:

Mikel Martinez

Eneko Sagardoy

Argiztapena:

Xabier Lozano

Audiobisualak:

Acrónica Producciones

Musika:

Pascal Gaigne

Diseinu grafikoa:

Irudika

Argazkiak:

Guillermo Casas

Eskenografiaren sorkuntza:

Eskenitek

Dosierraren argazkia:

Pio Ortiz de Pinedo

Produkzioa:

TARTEAN teatroa

688 617 712

tartean@tartean.com

Banaketa:

TARTEAN teatroa

Maria Goiricelaya

652 946 184

banaketa@tartean.com

PRODUKZIO BANAKETA

KONPAINIA

TARTEAN teatroa ibilbide luze eta sendoa duen antzerki konpainia da. Formato eta genero desberdineko ikuskizunak sortzen ditu, ikuslego helduari zuzenduak, gastelaniaz eta euskeraz. Taldearen ezaugarriarik nabarmenena sorkuntza da: taldeko kideek sortutako testu eta ideiekin ereikitzen dira ikuskizunak. Hori dela eta, gaur egungo erreferente bihurtu da Euskadiko teatroan.

Konpainiak euskal kultura eta antzerkiaren aldeko apostu garbia egiten du, eta ahalegin hori haintzat hartua izan da. Hainbat sari irabazi ditu azken urteotan, hala nola 2012an Patxo Telleria eta Jokin Oregik lortutako Max saria euskerazko testu onenari “Larria, kutsakorra eta mendebaldekoa” lanarekin; 2013an Patxo Telleriak lortutako Max saria euskerazko testu onenari “Lingua Nabajorum” lanarekin; edo 2014ean lortutako “Donosti Antzerki saria” ikuskizun berberarekin.

Jokin Oregi eta Patxo Telleriak elkarlanean Mikel Martinez eta Eneko Sagardoy aktoreen lana zuzenduko dute “ Zergatik, Jamil?”-en, Telleriak idatzitako testua. Ekoizpenean beste mail handiko profesionalek ere hartuko dute parte; Pascal Gaigne, Xabier Lozano edo Acrónica Producciones, besteak beste.

